BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

4364

EBAZPENA, 2012ko abuztuaren 8koa, Osasun Publikoko zuzendariarena, Sanea Control, S.L. sozietateak, Barakaldon, 2012ko ekainaren 4, 5 eta 6an emandako oinarrizko mailako ikastaroak gainditu dituzten ikasleei ingurumenerako eta elikagaien industriarako diren tratamendu bioziden aplikatzaile txartela (oinarrizko maila) banatzeko baimena ematen duena.

Ikusi da Sanea Control, S.L. (Ames, A Coruña) sozietateak bidali duen dokumentazioa, 2012ko ekainean emandako ikastaroen garapenari eta ikasleek ateratako probetxuari buruzkoa. Ikastaroa ingurumenerako eta elikagaien industriarako diren tratamendu bioziden aplikatzaileentzat izan zen (oinarrizko maila).

Kontuan izan behar da Osasun Publikoko Zuzendaritzak 2010eko ekainaren 3ko Ebazpenaren bidez baimena eman ziola Sanea Control, S.L. sozietateari oinarrizko mailako ikastaroak emateko. Ebazpen hori, hain zuzen ere, abenduaren 21eko 257/2004 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatzeko eman zen (257/2004 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Establezimendu eta Zerbitzu Bioziden Erregistro Ofiziala sortzen duena). Horiek horrela, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ingurumenerako eta elikagaien industriarako diren tratamendu bioziden aplikatzaile txartela (oinarrizko maila) ebazpen honen eranskineko zerrendan ageri diren pertsonei emateko agintzea.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Osasuneko sailburuordeari, ebazpena argitaratu eta hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko abuztuaren 8a.

Osasun Publikoko zuzendaria,
MARÍA MERCEDES ESTEBANEZ CARRILLO.

ERANSKINA

Ingurumenerako eta elikagaien industriarako diren tratamendu bioziden aplikatzaile txartela (oinarrizko maila) eskuratzeko baimena eman zaienen zerrenda.

Izena	1. abizena	2. abizena	NAN	Txartel-zenbakia
Aitzol	Avila	Largacha	22755795D	0094/2012
Ricardo	Ayuso	Barrigón	30695537J	0095/2012
Italo Nibaldo	Bado	Pereda	X9577688M	0096/2012
Luis Maykel	Cubas	Acosta	78622933D	0097/2012
Adolfo	De las Heras	Carnicero	30579623L	0098/2012
Agustín Máximo	Del Prado	Ferrero	11953890P	0099/2012
Javier	Galván	Fernández	70876761F	0100/2012
Oscar	Gordillo	Fernández	78887288W	0101/2012
Héctor	Hernández	Egido	07984374Q	0102/2012
Iñaki	Novo	Domínguez	45821166Z	0103/2012
Joseba	Soroa	Echave	15989539P	0104/2012